



Esklabotza Euskal Herrian eta esklabista euskaldunak



Euskal jatorriko pertsonak eskulan esklaboarekin eta pertsonen trafikoarekin zerikusia izan zuten hainbat esparru aztertu eta ezagutaraziko dira.

Uzt. 11 - Uzt. 12 2025

Kod. F02-25

Mod.:

Aurrez aurrekoa

Edizioa

2025

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Uzt. 11 - Uzt. 12 2025

Kokalekua

Iñigo Egiluz Erabilera Anitzeko Aretoa

Hizkuntzak

Euskara Gaztelera

Balio akademikoa

20 ordu

Antolakuntza Batzordea

Fundación
BBVA



Azalpena

Uda Ikastaro honen helburua Euskal Herriko esklabotzaren historiari eta memoriari buruz hausnartzea da. Horretarako, euskal jatorriko pertsonen eskulan esklaboarekin eta pertsonen trafikoarekin zerikusia izan zuten hainbat esparru aztertu eta ezagutaraziko dira, XVI. mendetik hasi eta XIX. mendean, mendebaldeko herrialdeetan, esklabotza debekatu zen arte.

Ikerkuntzan eta historian adituak diren hizlariak arituko dira ikastaroan; guztiak ere eskarmentu handikoak euskaldunen iraganeko alor ezezagun horretan.

Helburuak

Zenbait kasu azterlanen bidez, euskal jatorriko pertsonen esklaboen salerosketan edota eskulan esklaboaren erabileran izandako partaidetza erakusten duten adibideak ezagutzea, batez ere (baina ez soilik) Amerikan.

Egungo memoria historikoaren inguruan hausnartzea, Euskal Herriaren iragan esklabistari eta horrek gaurko gizartean dituen inplikazioei dagokienez.

Lankidetzak



Programa

2025-07-11

15:30 - 15:45 Erregistroa / Registro

15:45 - 16:00 Inaugurazio instituzionala. Parte hartzeko ordena:

Esther Corta Gabiola | Euskal Australiar Alkartea - Ikerlaria
Garbiñe Saenz de Buruaga Garralda | Ispasterreko udala - Alkatea

16:00 - 16:45 "Una familia vizcaína en los inicios de la trata de negros en el siglo XVI: los hermanos Urrutia de Balmaseda"

Julia Gómez Prieto | Universidad de Deusto - Irakasle emeritua / Profesora emérita

16:45 - 17:30 "Esclavistas y esclavos: el rostro oculto de la Gipuzkoa del siglo XVI"

Ana Galdós Monfort | UPV/EHU - Ikerlaria / Investigadora

17:50 - 18:35 "Unos esclavistas de Lekeitio en Cuba: los Goytisoló"

Martín Rodrigo Alharilla | Universitat Pompeu Fabra - Profesor

18:35 - 19:20 Sintesia

2025-07-12

10:00 - 10:45 "Euskal Herriak ez zuen inoiz esklabotzan parte hartu. (Des)memoria oker baten inguruan"

Oscar Alvarez Gila | UPV/EHU - Irakasle titularra / Profesor Titular

10:45 - 11:30 "Esklabotzaren isla eta memoria, Euskal Herriko egungo aktualitatean"

Urko Apaolaza Avila | Argia - Historialaria eta kazetaria

11:30 - 11:50 Atsedena

11:50 - 12:35 "Gizakien salerosketa eta esklabotza: antzinako fenomenoaren bizirautea gaur egungo gizartean"

Josune Lopez Rodriguez | Deustuko unibertsitatea - Zuzenbide fakultateko irakaslea

12:35 - 13:20 Sintesia

Zuzendaritza



Oscar Alvarez Gila

UPV/EHU, Irakasle Titularra

Amerikaren Historiako irakasle titularra da, Euskal Herriko Unibertsitateko Filologia eta Historia saileko kidea, Gasteizko Letren Fakultatean. Bere ikerketa lerro nagusia euskal diasporaren historia da. Atzerriko hainbat unibertsitatetan irakasle inbitatua izan da, besteak beste Oxfordeko unibertsitatean (Basque Visiting Fellow, 2008-2009), Nevada-Renoko Unibertsitatean (William Douglass Distinguished Scholar, 2010-2011), Georgiako Columbus State University-en (Elena Díaz-Verson Amos Eminent Scholar Chair in Latin American Studies, 2013-2014) eta Estokolmoko Unibertsitatean (Magnus Mörner Memorial Professorshio, 2016-2017). Euskal Herriko Unibertsitateko Euskal Diasporaren Graduondokoaren zuzendaria da.



Esther Corta Gabiola

Euskal Australiar Elkarte, EUSTRAL, Idazkaria

Euskara irakaslea eta ikertzailea. "Laia Ikerketa taldea: Nafarroatik Ameriketarako migrazioa " elkarteko bokala eta "Euskal Australiar Elkarteko" idazkaria. Etniker Bizkaia taldeko kidea. 1990etik hona ikerketak, kolaborazioak, hitzaldiak eta publikazioak egin ditu. Besteak beste, "Tokian tokiko emigrazioa" (Ea, 2014, 2016, 2024), "Australiara joanak" (Lekeitio 2022, 2023), "Indianoak" (Lekeitio, 2024). "Australiako Diaspora" hitzaldia (Gernika, Ondarru, Durango, Markina, Zarauz, Gasteiz, Donapaleu eta Parisen 2023-24). Publikazioak: "Antzinako kontuak" (1999), "La agricultura en Bedarona" (2010), "Mapa toponimico de Ea", "Ameriketara" (2016) eta "Ameriketara eta..." (2020) liburuak idatzi ditu. Bestalde, "Proyecto de entrevistas a retornados de Australia" (2022) eta "Basques in Australia" erakusketaren komisarioa da. 2019 eta 2023 an Diaspora egunaren antolatzaileetako bat (2019 Ispaster), (2023 Gernika-Lumo).

Irakasleak



Oscar Alvarez Gila

UPV/EHU, Irakasle Titularra

Amerikaren Historiako irakasle titularra da, Euskal Herriko Unibertsitateko Filologia eta Historia saileko kidea, Gasteizko Letren Fakultatean. Bere ikerketa lerro nagusia euskal diasporaren historia da. Atzerriko hainbat unibertsitatetan irakasle inbitatua izan da, besteak beste Oxfordeko unibertsitatean (Basque Visiting Fellow, 2008-2009), Nevada-Renoko Unibertsitatean (William Douglass Distinguished Scholar, 2010-2011), Georgiako Columbus State University-en (Elena Díaz-Verson Amos Eminent Scholar Chair in Latin American Studies, 2013-2014) eta Estokolmoko Unibertsitatean (Magnus Mörner Memorial Professorshio, 2016-2017). Euskal Herriko Unibertsitateko Euskal Diasporaren Graduondokoaren zuzendaria da.



Urko Apaolaza Avila

Hernani, 1979. Euskal Herriko Unibertsitatean egin zituen Historia ikasketak eta duela hogeit hamar urtetik Argia astekarian ari da kazetari lanetan, historia zein ekonomia sailetako gaiak eramaten. Esklabotzaren historiari buruzko hainbat lan idatzi ditu, bereziki Julián Zulueta esklabistaren inguruan. Argia-n ere dibulgaziorako artikulu ugari argitaratu ditu gai horri lotuta; hedabide horren Larrun gehigarrian Esklabotza lan monografikoa kaleratu zuen. Gainera, 1936ko Gerrako errepresioari buruzko hainbat libururen egilea da. Historian zehar bortxazko lanak kolektibo zaurgarrietan izan duen eragina eta gaur egun arte utzi dituen ondorioak, horiek dira bere ikerketa ildo nagusiak.



Ana Galdós Monfort

Ana Galdós Monfort es licenciada en Historia, diplomada en Estudios Avanzados en Didáctica de las CC.SS y del Patrimonio, y máster en Periodismo y Comunicación digital, con una destacada labor como divulgadora. Su ámbito de investigación se centra en las sociedades de los siglos XV y XVI. Forma parte del grupo de investigación Sociedades, Procesos y Culturas de la UPV/EHU. Su producción académica incluye varios artículos, capítulos de libros y monografías. Como divulgadora escribe en medios

generalistas, como El Diario Vasco, y ha colaborado en radio Ser de Irun. Su labor en redes sociales resalta la importancia de la paleografía y de las fuentes documentales en la reconstrucción histórica. Su compromiso con la difusión histórica busca acercar a la sociedad temas poco explorados, como la historia de las mujeres, los esclavos y otros grupos sociales desfavorecidos.



Julia Gómez Prieto

Profesora Emérita de la Universidad de Deusto. Doctora en Historia Moderna y Contemporánea por la Universidad de Deusto. Profesora de la Facultad de Historia de la misma Universidad entre 1974 y 1992. Trabaja desde 1972 sobre la Historia de Balmaseda (Bizkaia), sobre cuyas investigaciones ha publicado su Tesis Doctoral “ Balmaseda en el Antiguo Régimen Siglos XVI-XIX. Una villa vizcaína en el Antiguo Régimen” (1991); “Balmaseda , una historia local” (1991); “ El eje Bizkaia / Sevilla-Cádiz / América “ (1992); “Colección Malseda”, 2 tomos de historiografía y documentación inédita en 1995 ; y más de una treintena de artículos de revista, conferencias y ponencias sobre la villa de Balmaseda.



Josune Lopez Rodriguez

Zuzenbidean Doktorea da eta Zuzenbideko irakaslea da Deustuko Unibertsitatean. Deustuko Unibertsitateak eta Bizkaiko Abokatuen Elkargo Ohoretsuak elkarrekin eskaintzen duten Abokatutza eta Prokuradoretza jarduerarako Unibersitate Masterreko Zuzendarikidea da. Bere Doktoretza Tesia gizakien salerosketaren inguruan egin zuen, hain zuzen ere, lan esplotazioa helburutzat duen gizakien salerosketaren inguruan. Bere ikerketa lerro nagusiak ondorengoak dira: gizakien salerosketa, lan esplotazioa, lan duina, lan arloko delituak, enplegu berdea, lan arriskuen prebentzioa, gizarte ekonomia. Ikerketa egonaldiak egin ditu Herbeheretan eta Txilen.



Martín Rodrigo Alharilla

Doctor en Economía por la Universitat Autònoma de Barcelona, es Profesor Titular de Historia Contemporánea en el Departamento de Humanidades de la Universitat Pompeu Fabra (UPF). Es coordinador del Máster en Historia del Mundo y del GRIMSE (Grupo de Investigación en Imperios,

Metrópolis y Sociedades Extraeuropeas), ambos de la UPF, y director de la colección Esclavitudes, de la editorial Icaria. Entre sus últimos libros pueden destacarse, como autor: Los Goytisolo. Una próspera familia de esclavos (Madrid, Marcial Pons, 2016) y Un hombre, mil negocios. La controvertida historia de Antonio López, marqués de Comillas (Barcelona, Ariel, 2021); y como co-autor y coeditor: Negreros y esclavos. Barcelona y la esclavitud atlántica, siglos XVI-XIX (Barcelona, Icaria, 2017), Cádiz y el tráfico de esclavos. De la legalidad a la clandestinidad (Madrid, Silex, 2018) y Del olvido a la memoria. La esclavitud en la España contemporánea (Barcelona, Icaria, 2022).

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2025-06-30 ARTE	2025-07-11 ARTE
Gazte tarifa	25,00 EUR	61,00 EUR
Orokorra	-	87,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	-	74,00 EUR
Matrikula exentzioa	-	61,00 EUR
Ikastaroak guztiontzat	-	74,00 EUR
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatatuko kide	-	74,00 EUR
Elkar	-	74,00 EUR

Kokalekua

Iñigo Egiluz Erabilera Anitzeko Aretoa

Iñigo Egiluz Plaza - Ispaster 48288

Bizkaia